

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

3417

EBAZPENA, 2025eko uztailaren 11koa, Deskarbonizazio zuzendariarena, 2025eko ekainaren 18ko Ebazpeneko akatsak zuzentzekoa. Honen bidez, aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena ematen zaio «Arratzua-Ubarrundia, Zigoitia eta Aramaio udal-mugarteetan (Araba) eta Otxandio, Ubide, Dima eta Abadiño udal-mugarteetan (Bizkaia) energia elektrikoa garraiatzeko SC SE Abadiano–SE Vitoria linea (220 kV) berrindartzea» proiektuari.

Espediente-zenbakia: 01ATY 202200072 eta 48ATY 2022000117.

«Arratzua-Ubarrundia, Zigoitia eta Aramaio udal-mugarteetan (Araba) eta Otxandio, Ubide, Dima eta Abadiño udal-mugarteetan (Bizkaia) energia elektrikoa garraiatzeko SC SE Abadiano–SE Vitoria linea (220 kV) berrindartzea» izeneko proiektuari aurretiazko eta eraikuntzako administrazio baimena ematen dion 2025eko ekainaren 18ko Ebazpenean akatsak hauteman dira, eta, horrenbestez, zuzenketa hauek egin behar dira:

Aurrekariak ataleko 1. puntuan hau adierazten da:

2022ko urriaren 6an, I-De Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresak aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena eskatu zituen «Arratzua-Ubarrundia, Zigoitia eta Aramaio udal-mugarteetan (Araba) eta Otxandio, Ubide, Dima eta Abadiño udal-mugarteetan (Bizkaia) energia elektrikoa garraiatzeko SC SE Abadiano – SE Vitoria linea (220 kV) berrindartzea» proiektuari dagokion instalaziorako.

Hau esan behar du:

2022ko urriaren 6an, Red Eléctrica de España SAU enpresak aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena eskatu zituen «Arratzua-Ubarrundia, Zigoitia eta Aramaio udal-mugarteetan (Araba) eta Otxandio, Ubide, Dima eta Abadiño udal-mugarteetan (Bizkaia) energia elektrikoa garraiatzeko SC SE Abadiano – SE Vitoria linea (220 kV) berrindartzea» proiektuari dagokion instalaziorako.

Ebazpenaren «ebazten du» zatian hau adierazten da:

I-De Redes Eléctricas Inteligentes SAUri aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena ematea «Arratzua-Ubarrundia, Zigoitia eta Aramaio udal-mugarteetan (Araba) eta Otxandio, Ubide, Dima eta Abadiño udal-mugarteetan (Bizkaia) energia elektrikoa garraiatzeko SC SE Abadiano – SE Vitoria linea (220 kV) berrindartzea» proiektuari dagokion instalaziorako.

Hau esan behar du:

Red Eléctrica de España SAUri aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena ematea «Arratzua-Ubarrundia, Zigoitia eta Aramaio udal-mugarteetan (Araba) eta Otxandio, Ubide, Dima eta Abadiño udal-mugarteetan (Bizkaia) energia elektrikoa garraiatzeko SC SE Abadiano – SE Vitoria linea (220 kV) berrindartzea» proiektuari dagokion instalaziorako.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 11.

Deskarbonizazio zuzendaria,
GUILLERMO ALLENDE ARANGUIZ.